Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko otsailaren 5a, asteazkena — 23 — Miércoles, a 5 de febrero de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Oharra*

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko urtarrilaren 21ean, honako erabaki hauek hartu zituen:

«Udal-langileen plantillan aurrekontu-zuzkidura duten plaza hutsak daude, eta horiek behin betiko betetzea komeniko litzateke.

Zentzu horretan, beharrezkoa da erakundean dauden langile-beharrak eta -lehentasunak aztertzea, ardatz gisa hartuta iraupen luzeko behin-behinekotasun-egoerak murriztea eta enplegu publikora berdintasun-baldintzetan iristeko eskubidea.

Horregatik, eta aurreko paragrafoan aipatzen den azterketaren emaitza alde batera utzi gabe, Prebentzio Unitate Iraunkorreko Udaltzaingoko agenteen lanpostu hutsen egoera zehatza aztertu da, kontuan hartuta, gainera, lanpostu horiek betetzeko aukera dagoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoetako Oinarrizko Eskalako Agente kategorian eta Udaltzaingo Zerbitzuetan txanda ireki bidez sartzeko hautaketa-prozeduran deitutako plaza kopurua handituz (5. deialdi bateratua).

Deialdi hori arautzen duten oinarri espezifikoek, abian dagoenak, lehenengo oinarrian honako hau ezartzen dute: «Deitutako plazen kopurua handitu ahal izango da, hautaketa-prozesuan parte hartzen duten erakundeetan edozein arrazoi dela medio Ertzaintzako agente kategorian sortzen diren lanpostu hutsen arabera. Handitze hori dagokion erakundeko organo eskudunak eskatuta egingo da, eta hogeita batgarren oinarrian aurreikusitako moduan argitaratuko da, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez.

Balizko zabaltze horiek ere oinarri hauen bidez arautuko dira, eta, nolanahi ere, oposizio-lehiaketan gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzeko izapidea egin aurretik xedatu beharko dira».

Abian den hautaketa-prozesua oraindik ez da iritsi oposizio-lehiaketan gainditu dutenen behin-behineko zerrenda argitaratzeko fasera, eta, beraz, eraginkortasun-arrazoiak direla-eta, deitutako plazen kopurua handitzea komeni da.

Birjarpen arruntaren tasari dagokionez, Estatuak Aurrekontuen Legean arautzen ditu Enplegu Publikoaren Eskaintzaren urteko mugak. Gaur egun lege hori onartu gabe dagoenez, ulertzen da aplikatu beharreko araudia 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legea dela, 2024ra luzatua (20. artikulua). Esparru horretan kalkulatu da hornitu ahal izango diren plazen kopurua, hargatik eragotzi gabe Pertsonak Kudeatzeko Zuzendaritzak Enplegu Publikoaren Eskaintzaren bigarren faseari ekitea, non plaza gehiago sartuko diren.

Ohiko birjarpen-tasa hori kalkulatuta, lan-eskaintza publikoan 51 plaza sartu ahal izango lirateke langile berrientzat, baina Enplegu Publikoaren Eskaintza honetan Udaltzaingoko agenteen 6 plaza baino ez dira sartzen, lehen azaldutako eraginkortasun- eta larrialdi-arrazoiengatik.

## AYUNTAMIENO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Anuncio*

La Junta de Gobierno Local con fecha 21 de enero de 2025, ha acordado lo siguiente:

«En la plantilla de personal municipal constan plazas vacantes dotadas presupuestariamente que sería deseable cubrir con carácter definitivo.

En ese sentido, es necesario analizar las necesidades y las prioridades de personal existentes en la organización, teniendo como ejes la reducción de las situaciones de temporalidad de larga duración y el derecho de acceso al empleo público en condiciones de igualdad.

Por ello y, sin perjuicio del resultado del análisis al que se refiere el párrafo anterior, se ha analizado la situación concreta de las vacantes de Agentes de Guardia Municipal de la Unidad de Prevención Permanente, habida cuenta además de la posibilidad de su provisión mediante la ampliación del número de plazas convocadas en el procedimiento selectivo para ingreso por turno libre en la categoría de Agente de la Escala Básica de los Cuerpos de Policía del País Vasco y Servicios de Policía Local (5.ª conjunta).

Las bases específicas que regulan dicha convocatoria y que se encuentra en curso establecen en su base primera que «El número de plazas convocadas será ampliable, en función de las vacantes de la categoría de Agente de la Policía Vasca que se produzcan, por cualquier causa durante el desarrollo del proceso selectivo en las diferentes organizaciones participantes en el proceso. Dicha ampliación, se realizará a petición del órgano competente de la respectiva organización y se hará pública en la forma prevista en la Base Vigesimoprimera, mediante Resolución del Director General de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Tales posibles ampliaciones se regirán igualmente por estas bases, y en todo caso, deberán ser dispuestas con anterioridad al trámite de publicación de la relación provisional de personas aprobadas en el concurso-oposición».

El proceso selectivo que se encuentra en marcha no ha llegado todavía a la fase de publicación de la relación provisional de personas aprobadas en el concurso-oposición, por lo que existen razones de eficiencia que aconsejan ampliar el n.º de plazas convocadas.

En relación a la tasa de reposición ordinaria, es en la Ley de Presupuestos donde el Estado regula las limitaciones anuales en la Oferta de Empleo Público. No habiéndose aprobado a día de hoy dicha Ley, se entiende que la normativa de aplicación es la Ley 31/2022 de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, prorrogada para el año 2024 (art. 20). Es en este marco sobre el que se ha calculado el número de plazas a poder dotar, todo ello sin perjuicio de que la Dirección de Gestión de Personas aborde una segunda fase de Oferta de Empleo Público en la que se incluyan más plazas.

Calculada dicha tasa de reposición ordinaria, las plazas que se podrían incluir en la Oferta Pública de Empleo para personal de nuevo ingreso ascenderían a 51, si bien en la presente propuesta de Oferta de Empleo Público únicamente se incluyen 6 plazas de Agentes de Guardia Municipal, por los motivos de eficacia y urgencia anteriormente expuestos.

EK\CV GAO-I-2025-00486

Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazen ehunekoari dagokionez, Euskal Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 74. artikuluan eta Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrean (1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) xedatutakoaren arabera, Udaltzaingoko agenteen plazak direnez eta medikuntzako bazterketen mende daudenez, ezin da erreserba hori aplikatu. Hala ere, Enplegu Publikoaren Eskaintzaren bigarren fasea onartzen denean, legezko erreserba hori kontuan hartu beharko da.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bateginaren 70. artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikuluan ezarritakoa aplikatuz onartu zen Enplegu Publikoaren Eskaintza hori.

Eskainitako plaza guztiek aurrekontua dutela jakinarazten da.

Azkenik, proposamena langileen ordezkariekin negoziatu da, Enplegatu Publikoaren Estatutuaren Legearen 37.1.l artikuluarekin bat etorriz, eta espedientean jasota geratu da.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 127. artikuluko h) idatz-zatiaren edukiaren arabera, Tokiko Gobernu Batzarraren eskumena da Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea, baita hautaketarako deialdiak eta oinarriak ere.

Horregatik guztiagatik, Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki hauek hartzea proposatzen zaio:

ERABAKIAK

1. 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintza onartzea (Udaltzainak), hor sartuta eranskinean jasotako funtzionarioen langileriako plaza hutsak.

2. 2025eko Enplegu Publikoaren Eskaintza (Udaltzainak) onartzeko erabakia Estatuko Administrazio Orokorrari igortzea.

3. Lehenengo erabakiaren edukia legez ezarritako aldizkari ofizialetan argitaratzea.»

Erabaki hau behin betikoa da, eta buru eman dio administrazioko bideari. Beraz, erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hilabete joan baino lehen, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokezu Donostiako Gobernu Batzarrari; edo, bestela, zuzenean, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegian, eta han jarri errekurtsoa bi hilabete baino lehen. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2025eko urtarrilaren 22a.—Alfonso Jimenez Grandes Pertsonen Kudeaketako zuzendaria. (486)

En relación al porcentaje de plazas reservadas a personas con discapacidad establecido en el art. 74 de la Ley 11/2022 de Empleo Público Vasco, así como por la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, aprobado por Real Decreto Legislativo 1/2013, se concluye que tratándose de plazas de agentes de Guardia Municipal, sujetas a exclusiones médicas, no es posible aplicar dicha reserva. Ello, sin perjuicio de que cuando se apruebe una segunda fase de Oferta de Empleo Público, dicha reserva legal, obviamente, tenga que ser tenida en cuenta.

La presente Oferta de Empleo Público se aprueba en aplicación de lo establecido en el artículo 70 del Texto Refundido del Estatuto Básico del Empleado Público aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre y en el artículo 52 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

Se hace constar que todas las plazas ofertadas cuentan con disponibilidad presupuestaria.

Por último, la propuesta ha sido negociada con la representación de personal, de conformidad con el artículo 37.1.l de la Ley del Estatuto del Empleado Público, de lo que queda constancia en el expediente.

De conformidad con el contenido del artículo 127, apartado h) de la Ley 7/1985, reguladora de las Bases de Régimen Local, es competencia de la Junta de Gobierno Local la aprobación de la Oferta de Empleo Público, así como las convocatorias y Bases de Selección.

Por cuanto antecede, se propone a la Junta de Gobierno Local, la adopción de los siguientes:

ACUERDOS

1. Aprobar la Oferta de Empleo Público del año 2025 (Agentes de Guardia Municipal) que incluye las plazas vacantes de la plantilla del personal funcionario que se recoge en el documento anexo.

2. Remitir el acuerdo aprobatorio de la Oferta de Empleo Público del año 2025 (Agentes de Guardia Municipal) a la Administración General del Estado.

3. Publicar el contenido del precedente acuerdo primero en los Boletines Oficiales legalmente establecidos.»

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa pudiendo, a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, interponerse contra el mismo recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local en el plazo de un mes, o impugnarse directamente, en el plazo de 2 meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime conveniente.

San Sebastián, a 22 de enero de 2025.—El director de Gestión de Personas, Alfonso Jimenez Grandes. (486)

2025EKO ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

| *Azpitaldea* | *Plazaren deskribapena* | *Txanda irekia* | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Sarrera orokorra* | *Ezgaitas.* | *HE* | *Derrigortasun data* |
| Eskala: Administrazio berezia- Azpieskala: Zerbitzu bereziak – Klasea: Udaltzaingoa | | | | | |
| C1 | Udaltzaina | 6 | | B2 | Iraungita |

OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO 2025

| *Sub-grupo* | *Descripción plaza* | *Turno libre* | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | | *Acces. gral.* | *Reser.disc.* | *PL* | *Fecha preceptividad* |
| Escala: Administración Especial - Subescala: Servicios Especiales – Clase: Policía Local | | | | | |
| C1 | Agente (Guardia Municipal) | 6 | | B2 | Vencida |